

2022ko Batzar Nagusia

Gai-zerrendako puntua: 8 • dokumentua: 2

Tarifa soziala mozioa 2022ko Batzar Orokorra

AURKIBIDEA

Proposamenaren testuingurua	2
Testuinguruari egindako beste ekarpen batzuk.	2
Ekonomikoki nola hartuko luke Som Energiak tarifa soziala bere gain?	2
Zer irizpide hartu beharko lirateke aintzat tarifa soziala ezartzeko?	2
Fakturaren zein ehuneko hartu beharko luke bere gain tarifa sozialak?	3
Batzar Nagusian onartu beharreko proposamena	3

Proposamenaren testuingurua

Azterlan bat bideratzea irizpide tarifa sozial bat eskaintzea bideragarria den jakiteko, irizpide zehatz batzuk betetzen dituzten edo zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonentzat. Eztabaida irekitze hutsa positiboa izan daiteke; gerora, egoki baderitzo, Batzarrak susta dezake.

Proposamen hau Parte-hartu atalean dago eskuragarri, eztabaidagai izateko eta aberasteko. [Hemen](#) duzue oharrak ikusteko eta zuen ekarpenak egiteko aukera.

Testuinguruari egindako beste ekarpen batzuk.

Tokian tokiko taldeen topaketan zenbait proposamen jaso ziren, honako galdera hauen harira:

Ekonomikoki nola hartuko luke Som Energiak tarifa soziala bere gain?

- Kontzeptu hori tarifaren kalkuluan sartu beharko litzateke, Som Energiako kontsumitzaile guztiek kostu hori beren gain har dezaten.
- Irabazien ehuneko bat izan beharko litzateke (tarifa garestitu gabe), hala, Som Energia osoan eragina izateko.
- Tarifa soziala gure gain hartu beharko genuke autokontsumodun kontratuetako soberakin konpentsatu gabeen bidez; Som Energiak merkatuan erosten ez duen eta dagoeneko eskura izango lukeen energia.
- Tarifa soziala kontratuen borondatezko dohaintzaren bidez hartu beharko genuke gure gain. Egun, kontratuen %20ak hartzen du bere gain.
- Bestelakoak

Zer irizpide hartu beharko lirateke aintzat tarifa soziala ezartzeko?

- Bazkidea izatea
- Familia ugaria izatea
- Familia-errentaren araberakoa izatea
- Ondarearen araberako izatea
- Bestelakoak

Fakturaren zein ehuneko hartu beharko luke bere gain tarifa sozialak?

- Faktura-kostuaren ehuneko finko bat
- Energiaren kostua marjinarik gabe
- Kooperatibak estalitako parte finko bat (adb. 2,5 kW eta 200 kWh)
- Kontsumoaren ehuneko (% 80 - % 100), errentaren arabera, bizi-minimoa bermatzeko.
- Bestelakoak

Batzar Nagusian onartu beharreko proposamena

Batzar Nagusiari eskatzen zaio baldintza edo zailtasun ekonomiko jakin batzuk dituzten pertsonen tarifa sozial bat eskaintzeko aukera aztertzearen aldeko jarrera har dezala.